

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5376

*EBAZPENA, 2020ko urriaren 21ekoa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez ondoko aginduaren babespean eskatutako laguntzak eman eta ukatzen baitira: Agindua, 2020ko urtarrilaren 31koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena; agindu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko G4, G5 eta G6 sailkatutako landa eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egin zuen, erakunde publikoei zuzenduta (Erein publikoak), 2020ko ekitaldirako.*

Ikusi dira aipatutako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren babespean eskatutako laguntzak –ebazpen honen I. eta II. eranskinetan (1) eta (2)– eta eskaerekin batera ekarritako dokumentazioa –espediente zenbakiak aipatu eranskinetan agertzen dira–.

Kontuan izan da, besteak beste, Landa Ingurunearen Garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legearen arabera, landa garapeneko politikaren xede orokorrak ondokoak direla: nekazaritzaren eta landa ingurune osoaren funtzioaniztasuna eta iraunkortasuna bermatzea, landa ingurunearen berezko ezaugarri nagusiak zaintzea eta enpresek eta ekonomia egiturek lehiatzeko duten gaitasuna hobetzea eta sustatzea.

Kontuan izanda diruz laguntzen diren jarduketak eta onuradunak, agindu honetan araututako laguntzak ez dira estatuko laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluetan jasotakoarekin bat etorrita.

Balorazio Batzordeak ebazpen proposamena egin du. Batzorde hori 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 10. ebazpen-zatia aplikatuta eratu eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak 2020ko ekainaren 26an emandako Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Kontuan hartuta aurreko guztia, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean (1) aipatutako erakunde eskatzaileei Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduan araututako laguntzak ematea; izan ere, eranskin horretan ondokoak zehazten dira: pertsona onuraduna, diruz lagundutako proiektua, diruz laguntzeko moduko gastuaren eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta guztizko zenbatekoa, zeina 2.802.768,28 euro baita.

Jarduketak gauzatzeko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da; deialdiko urtean hasi beharko da, eta, hala badagokio, 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren hamabosgarren ebazpen-zatiko bigarren puntuan ezarritako gehieneko epea gainditu gabe luza daiteke.

Dirulaguntza 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduaren 16. ebazpen-zatian ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Beharrezko direnean baimenak edota lizentziak, horiek ematea ezinbestekoa izango da laguntza kobratzeko.

Diruz laguntzeko moduko proiektua ezarritako epeen barruan egiten ez bada, ezta luzapen-epeen barruan ere, edo ezarritako epean proiektua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, horrek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean (2) aipatutako erakunde eskatzaileei ukatzea Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 31ko Aginduan araututako laguntzak, eta eranskin horretan erakunde eskatzailea eta ukatzearen zioak zehaztea.

Hirugarrena.– Laguntza ematen zaion proiektua betetzen ez bada, edo laguntza ematea ekarri duten baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta batez ere, laguntza jaso duten proiektuetako inbertsioei ondorengo bost urteetan gutxienez ez bazaie eusten, laguntzak eten egingo dira, eta eskuratutako kopuruak itzuli beharko dira, osorik edo zati batean.

Laugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 21a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,  
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

2020ko abenduaren 15a, asteartea

## I. ERANSKINA

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Lagun. inbe. (eurotan)	Jasotako laguntza (eurotan)	
					2020 (eurotan)	2021 (eurotan)
1	00001-ERE2020-27	Larrabetzuko Udala	Separación pluviales y fecales - 1. zatia.	108.048,69	20.745,35	31.118,02
2	00002-ERE2020-27	Egiletako Administrazio Batzarra	Cubierta de la bolera de Egileta.	29.976,76	3.581,62	5.372,44
3	00006-ERE2020-27	Aizarnazabalgo Udala	Zubialdeko bidean saneamendu berria.	104.264,04	21.269,86	31.904,80
4	00007-ERE2020-27	Gatikako Udala	Gatikako argiteriaren hobekuntza.	41.528,18	8.139,52	12.209,28
5	00008-ERE2020-27	Mendozako Administrazio Batzarra	Nueva pista multideporte.	73.320,57	9.596,20	14.394,29
6	00009-ERE2020-27	Mungia Udala	Construcción de la red de saneamiento de Larauo, Zabalondo (colector B) en Mungia.	209.657,24	40.254,19	60.381,29
7	00012-ERE2020-27	Muskizko Udala	Proyecto de saneamiento en el barrio El Carrascal.	301.219,97	54.219,60	81.329,39
8	00013-ERE2020-27	Adunako Udala	herriarren gozamerenerako parke balioanizta sortzea.	303.772,17	58.324,26	87.486,38
9	00014-ERE2020-27	Zierbenako Udala	Acondicionamiento de vivienda para equipamiento municipal en el barrio Kardeo nº14 de Zierbena.	849.927,14	152.986,88	229.480,33
10	00016-ERE2020-27	Olaberriko Udala	Ihurreko herri ostautua.	236.106,99	46.645,30	69.967,94
11	00017-ERE2020-27	Asteasuko Udala	Haur eta nerabeentzako jolasguneak birmoldatzeko lanak.	30.227,00	5.319,95	7.979,93
12	00020-ERE2020-27	Iurako Udala	Kirol anitzeko pista egokitzea.	124.859,37	22.954,15	34.431,22
13	00021-ERE2020-27	Urbina Administrazio Batzarra	Urbanización Urbina 1º fase.	1.222.123,69	147.925,85	221.888,78
14	00022-ERE2020-27	Delikako Administrazio Batzarra	Mejora de alumbrado público para ahorro energético en Delika.	24.599,67	4.919,94	7.379,90
15	00024-ERE2020-27	Elgetako Udala	San Roke kalea - irisgarritasuna hobetu.	11.449,58	1.923,53	2.885,29
16	00025-ERE2020-27	Usurbilgo Udala	Akerra eraikina. txokoaldeko auzotarren bilgune berria.	171.521,53	33.618,22	50.427,33
17	00026-ERE2020-27	Saratxoko Administrazio Batzarra	Segunda fase, amueblamiento de la escuela de Saratxo como alojamiento rural.	12.279,77	2.554,19	3.831,29
18	00028-ERE2020-27	Anoetako Udala	Herritarren parte hartzearekin adostuta herriko plazaren biziberritzea. irisgarritasuna bermatu.	489.321,71	68.505,04	102.757,56
19	00029-ERE2020-27	Muruetako Udala	reforma envolvente y espacio de ocio de edificio servicios Udal Barri.	49.352,96	8.686,12	13.029,18
20	00030-ERE2020-27	Ormaiztegi Udala	Obras de reforma de las piscinas municipales de Ormaiztegi.	237.710,95	44.689,66	67.034,49

2020ko abenduaren 15a, asteartea

	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Lagun. inbe. (eurotan)	Jasotako laguntza (eurotan)	
					2020 (eurotan)	2021 (eurotan)
21	00032-ERE2020-27	Ribabellosako Administrazio Batzarra	Acondicionamiento de local para usos polivalentes.	95.537,84	7.677,42	11.516,13
22	00033-ERE2020-27	Laguardiako Udala	Rehabilitación de local para salas multiusos.	77.537,18	16.437,88	24.656,83
23	00034-ERE2020-27	Lezamako Udala	Reforma de locales municipales para creación de salas multiactividad del Ayuntamiento de Lezama.	275.478,26	42.974,61	64.461,91
24	00035-ERE2020-27	Eskoriatzako Udala	Apotzagako argiteria hobekuntza.	47.446,84	7.401,71	11.102,56
25	00036-ERE2020-27	Barrikako Udala	Proyecto de saneamiento en el barrio de San Telmo de Barrika.	184.116,44	36.823,29	55.234,93
26	00037-ERE2020-27	Lemoako Udala	Saneamiento del barrio Errekalde-Zabale.	48.215,75	9.836,01	14.754,02
27	00038-ERE2020-27	Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa	Infraestructura para la generación de energía renovable en la chabola de La Dominica.	6.697,65	1.339,53	2.009,30
28	00039-ERE2020-27	Itsasondoko Udala	Itsasondoko eta Ordiziako hainbat baserri Gipuzkoako ur kontsorzioaren sareko urez hornitzea.	766.000,00	119.986,24	179.979,36
29	00040-ERE2020-27	Bergarako Udala	Ubera auzoko eskola-etxea birgaitzeko obra.	228.495,99	37.473,34	56.210,02
30	00045-ERE2020-27	Eiciegoko Udala	Reforma de instalación eléctrica de baja tensión en alumbrado exterior fase II.	132.287,29	24.340,86	36.511,30
31	00048-ERE2020-27	Altzoko Udala	Alto Muñon enegia berriztagarriak erabiltzeko proiektua: energia elektrikoa sortzeko instalazio.	41.968,85	6.715,02	10.072,52
32	00049-ERE2020-27	Markina-Xemeingo Udala	Markina-Xemeingo Barinaga auzoan, frontoiaren hobekuntza proiektua.	4.641,23	761,16	1.141,74
33	00050-ERE2020-27	Laukizko Udala	Obra de dotación de accesibilidad al probadero municipal.	87.880,39	16.521,51	24.782,27
34	00051-ERE2020-27	Erribera Beitiako Udala	Reforma de zona degradada para parque infantil.	62.334,13	11.220,14	16.830,22
35	00057-ERE2020-27	Legutioko Udala	Supresión de las barreras arquitectónicas exteriores de acceso al gimnasio del frontón Luis Fernando.	44.070,18	8.814,04	13.221,05
36	00058-ERE2020-27	Güeñesko Udala	Renovación de la cubierta y de la envolvente térmica en edificio polivalente en La Quadra.	102.110,28	15.925,12	23.887,68

2020ko abenduaren 15a, asteartea

## II. ERANSKINA

## UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Ukapenaren arrazoia
1	Larrabatzuko Udala	Reposición red de saneamiento en Belarrinaga, fase II.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
2	Bakioko Udala	Recuperación de entornos habitados y adecuación urbanística en Artzalde: accesibilidad y mobiliario.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
3	Enirio-Aralar Mankomunitatea	Enirio-Aralarren azteizentzako 8 uraska berri eraikitzea.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
4	Lemoako Udala	Nueva red de abastecimiento de agua en barrio Lemorieta.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
5	Zallako Udala	Proyecto de acera, aparcamiento y zona de carga-descarga en avenida trabajadores (Aranguren) Zalla.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
6	Arrasateko Udala	Udala auzoko argiteri publikoaren instalazioa.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
7	Laudioko Udala	Proyecto de adecuación urbanística para aparcamiento en Ermualde. fase 1.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
8	Iurretako Udala	Mejora del alumbrado público en San Andres auzoa.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
9	Itziaroko Toki Enititate Txikia	Mutxiarte kalearen eraberritze eta egokitzea.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
10	Urnietako Udala	Mandazubiko etxeetara ur sare berria eramateko lanak.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
11	Zestoako Udala	Aizamako erdigunearen egokitzapena.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
12	Urduñako Udala	Rutas senderistas para conocer rincones desconocidos de Orduña la Orduña rural. diseño creación.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
13	Urduñako Udala	Proyecto comunitario Antzina enea.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
14	Orozko Udala	Mejora de accesibilidad y seguridad a los barrios Manzarbeiti y Olabarriandikoa en el T.M. de Orozko.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
15	Izurtzako Udala	Onda verde.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.

2020ko abenduaren 15a, asteartea

	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Ukapenaren arrazoia
16	00062-ERE2020-27	Gorlizko Udala	Renovacion campo futbol.	Proiektua ez dator bat Aginduak arautzen dituen laguntza lerroekin.
17	00063-ERE2020-27	Erandio Elizateko Udala	Proyecto de saneamiento del barrio de Agarre. fase 1. T.M. Erandio.	Proiektuak ez du jaso gutxienezko puntuazioa lagungarria izateko.